

Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3736

69/2010 EBAZPENA, ekainaren 29koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, «2010. urtean sektore estrategikoetako enpresei finantza-sostengua emateko programa berezia» aldatzeari buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia argitaratu dadila xedatzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2010eko uztailaren 27a egindako bilkuran, «2010. urtean sektore estrategikoetako enpresei finantza-laguntza emateko programa berezia» zati baten aldatzeari buruzko Erabakia hartu du; beraz, beharrezko zabalkundea emateko xedez, honakoa

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea «2010. urtean sektore estrategikoetako enpresei finantza-sostengua emateko 2010eko programa berezia» zati baten aldatzeari buruzko Erabakiaren testua. Eranskin gisa ageri da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 29a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.^a JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ERABAKI PROPOSAMENA, SEKTORE
ESTRATEGIKOETAKO ENPRESEI FINANTZA
LAGUNTZA EMATEKO 2010EKO PROGRAMA
BEREZIA ZATI BATEAN ALDATZEKO

ERABAKIA, 2010. URTEAN SEKTORE
ESTRATEGIKOETAKO ENPRESEI
FINANTZA-SOSTENGUA EMATEKO PROGRAMA
BEREZIA ALDATZEARI BURUZKOA

Gobernu Kontseiluaren 2010eko apirilaren 13ko Erabakiaren bitartez eta ondoren Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren apirilaren 21eko Aginduaren bitartez, sektore estrategikoetako enpresei finantza-laguntza emateko berariazko programa onartu zen, eta hedatu egin zen horrela aurreko urtean garatutako programa.

Krisi honen iraupenak eta intentsitateak finantza-programa hartan definitzen zen hasierako esparrua aldatu beharra ekarri du, maileguren epeak malgutzek errazagoa bihurtu dezan maileguok itzultzea eta

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3736

RESOLUCIÓN 69/2010, de 29 de julio, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno «por el que se modifica parcialmente el programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos para el año 2010».

Habiéndose aprobado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 27 de julio de 2010, el Acuerdo «por el que se modifica parcialmente el programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos para el año 2010», y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.— Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del Acuerdo «por el que se modifica parcialmente el programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos para el año 2010», que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2010.

La Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento,
M.^a JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 69/2010, DE 29 DE
JULIO, DE LA DIRECTORA DE LA SECRETARÍA
DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL
PARLAMENTO

ACUERDO POR EL QUE SE MODIFICA
PARCIALMENTE EL PROGRAMA ESPECÍFICO DE
APOYO FINANCIERO A EMPRESAS DE SECTORES
ESTRATÉGICOS PARA EL AÑO 2010

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de 13 de abril de 2010 y posterior Orden de 21 de abril del Consejero de Economía y Hacienda se aprobó el programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos, que suponía una extensión del programa desarrollado en el año precedente.

La duración e intensidad de esta crisis muestra la necesidad de modificar el marco inicial definido en dicho programa de financiación, con el objeto de facilitar mediante la flexibilización de los plazos de los

enpresa-ingurunea une honetan jasaten ari den ingurune atzerakor luze honetara egokitzea. Malgutez hori ez da mugatzen, gainera, aurtengo programaren babesean formalizatuko diren mailegu berrietara; aitzitik, 2009. urteko programaren indarraldian zehar formalizatutako maileguak ere barne hartzen ditu.

Hori guztia dela eta, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak proposatuta, eztabaidatu ondoren Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

«**Lehenengoa.**– Gobernu Kontseiluaren 2010eko apirilaren 13ko Erabakian eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko apirilaren 21eko Aginduan adierazitako bermeak eta finantzaketa-lerroak eskuratu ahal izango dituzte, bi arau horietako bigarren idatz-zatian eta 7. artikuluan hurrenez hurren jasotzen diren enpresek ez ezik, 2009ko otsailaren 10eko Erabakiak eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2009ko martxoaren 3ko Aginduak (aurreko urteko programaren baliokidea antolatzen zutenek) gaitutako finantzaketa lortu zuten enpresek ere, beti ere oraingo finantzaketa-lerroan finkatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Nolanahi ere dela, bermatu beharko da eragiketa horien birfinantzaketak, behin gauzatuta, ez duela berekin ekarriko enpresakako edo taldekako gehieneko mugak gainditzea (muga horiek sektore estrategikoei 2010. urterako finantza-laguntza emateko programa garatu eta haren deialdia argitara ematen zuen Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko apirilaren 21eko Aginduaren 7. artikuluan finkatzen ziren). Birfinantzaketa hori ezin izango da 2009. urteko programaren kontura formalizatutako zenbatekoaren % 50 baino altuagoa izan, Ekonomia eta Ogasun Sailaren aurrean behar bezala justifikatutako salbuespen puntualetan izan ezik.

Bigarrena.– Mailegu-eragiketen epea luzatu egiten da: hiru edo bost urtetarako izan ahal izango dira, eta zenbateko nagusia amortizatzeke urtebeteko aukerako gabealdia izan ahal izango dute.

Kreditu Ofizialeko Institutuaren (KOI) funtsekin finantzatzen diren eragiketek KOIren lagapen-tasa finkoa gehi % 1 aplikatuko dute azken enpresa onuradunarentzat, finantza-erakundeen eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren artean sinatutako esparrukontratuetan adierazita agertzen denez.

Hirugarrena.– Gobernu Kontseiluaren 2010eko apirilaren 13ko Erabakiaren eta ondoren Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren apirilaren 21eko Aginduaren babesean eta honako aldaketa hau indarrean sartu aurretik formalizatutako mailegu-eragiketen

préstamos la devolución de los mismos y su adaptación a un entorno recesivo prolongado como el que actualmente está soportando el entorno empresarial. Esta flexibilización no se limita, además, a los préstamos nuevos a formalizar al amparo del programa para el presente año sino que se extiende a los préstamos formalizados durante la vigencia del programa del año 2009

Por todo ello, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

«**Primero.**– Podrán acceder a las garantías y a la línea de financiación contempladas en el Acuerdo de Consejo de Gobierno, de 13 de abril de 2010 y en la Orden de 21 de abril de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda, además de las empresas recogidas en el apartado segundo y artículo 7, respectivamente, de dichas normas aquellas empresas acogidas a la financiación habilitada por el Acuerdo de 10 de febrero de 2009 y en la Orden de 3 de marzo de 2009, de la Consejera de Economía y Hacienda, por las que se instrumentaba el programa equivalente en el año precedente, siempre que cumplan el resto de condiciones fijadas en la presente línea de financiación.

En cualquier caso se deberá garantizar que la refinanciación de dichas operaciones no implique tras su realización una superación de los límites máximos por empresa o grupo fijados en el artículo 7 de la Orden de 21 de abril de 2010 del Consejero de Economía y Hacienda por la que se desarrolla y hace pública la convocatoria del programa de apoyo financiero a sectores estratégicos para el año 2010. Esta refinanciación no podrá superar el 50% del importe formalizado con cargo al programa del año 2009, salvo excepciones puntuales debidamente justificadas ante el Departamento de Economía y Hacienda.

Segundo.– Se amplía el plazo de las operaciones de préstamo pudiendo ser éstas a tres o cinco años, con uno de carencia opcional para la amortización de principal.

Aquellas operaciones que se financien con fondos provenientes del Instituto de Crédito Oficial (ICO) aplicarán un tipo de interés máximo para la empresa beneficiaria final de Tipo de Cesión Fijo ICO más 1%, según viene definida dicha referencia en los correspondientes contratos marco suscritos entre las entidades financieras y el Instituto de Crédito Oficial.

Tercero.– Las condiciones financieras de las operaciones de préstamo formalizadas al amparo del Acuerdo de Consejo de Gobierno, de 13 de abril de 2010 y posterior Orden de 21 de abril, del Consejero de Economía y Hacienda, con anterioridad a la entrada

finantza-baldintzak Erabaki honetan biltzen diren baldintza berrietara egokitu ahal izango dira, baldin eta halakorik eskatzen badute maileguaren onuradunak, elkarrekiko berme-baltzu abal-emaileak eta finantzaketa ematen duen finantza-erakundeak

Bigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzak aginduko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea erabaki honen testua».

en vigor de esta modificación, podrán adaptarse a las nuevas condiciones recogidas en este Acuerdo si media manifestación en tal sentido del beneficiario del préstamo, de la sociedad de garantía recíproca avalista así como de la entidad financiera concedente de la financiación.

Cuarto.– Por la Secretaría del Gobierno se ordenará la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del texto del presente Acuerdo».